



JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO

al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

GEHIGARRIA

Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

83. zk.

2004ko uztailaren 21a, asteazkena - Miércoles, 21 de julio de 2004

nº 83

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

4.712

Arabako Biltzar Nagusiek, 2004ko uztailaren 12an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Araua onetsi zuten:

16/2004 FORU ARAUA, UZTAILAREN 12KOA, IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEN ETA MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIEN ZERGA ARAUBIDEARI BURUZKOA.

ZIOEN AZALPENEA

Azken hamarkada honetan, irabazteko xederik gabeko erakunde pribatuek garapen nabarmena izan dute. Gizarteak gero eta argiago ikusten du sektore pribatuak interes orokorreko jardueretan parte hartu behar duela sektore publikoa bultzatzeko, batzuetan sektore publikoa ez baita gauza "ongizatearen gizartea" deitutakoaren itzalpean sortu diren eta gero eta ugariagoak diren premiei erantzuteko; horren guztiaren ondorioz, batetik, erakunde berriak sortu dira eta, bestetik, herritarrek gero eta sostengu handiagoa ematen diete erakunde horiei.

Aurrerapen horren ondorioz, zaharkituta geratu da Interes Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribaturako Zerga Pizgarri buruzko apirilaren 24ko 13/1996 Foru Arauak onetsi zuen erregulazioa; hala, beraz, Foru Arau honek araudi hori beste araudi berriago batekin ordezkatuko du, eta bere esparruko erakundeei segurtasun juridikoa eskaintzea, erakundeek erregimena aplikatzeko bete beharreko baldintzak malgutzea eta interes orokorreko jarduerak egitera bideratutako ekarpen sozialei aplikatu behar zaien zerga-tratamendua hobetzea izango ditu xede.

Foru Araua hiru titulutan egituratuta dago. I. tituluak xedea, aplikazio-eremua eta araudi ordezkatzaileari buruzko aipamena bildu ditu.

II. Tituluak irabazteko xederik gabeko erakundearen zerga-arabidea arautu du, eta hiru kapitulu ditu. Lehenengo kapituluan zehaztu da onura publikoko fundazioek eta elkarteek zein baldintza bete behar duten, Foru Arauaren ondorioetarako, irabazteko xederik gabeko erakundetzat jo ahal izateko, eta, beraz, arauan ezarritako zerga-erregimena hartu ahal izateko.

Ezarritako baldintzen artean, nabarmendu behar da, lehen bezala, ustiapen ekonomikoetatik eta ondasunak edo eskubideak eskualdaketetik etorritako errenten %70 bideratu behar dela, gutxienez, erakundearen berezko helburuetarako. Berrikuntzen artean, berriz, aipatu behar da erakundeak dagokion jarduera egiteko dituen ondasun higiezinak besterentzeak ekarritako kopuruak salbuetsi direla, baldintza batzuk betetz berriz inbertitzen badira.

Betebehar hori betetzeko epea errentak eta sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieran hasi, eta ekitaldia itxi ondoko lau urteak igarotakoan bukatuko da. Salbuespen bakarra hiru urtetan baino gehiagotan eutsitako balioen kostu bidezko eskualdaketak eragindako errentak dira, horien epea hamar urtekoa izango baita.

Oro har, erakundeek ezin diete aldeko traturik eman haien sortzaileei, haien organo artezkarietako kide direnei edota haien senideei, eta berean, horiek ezin dira erakundearen jardueren hartzaile nagusiak izan.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

4.712

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 12 de julio de 2004, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 16/2004, DE 12 DE JULIO, DE RÉGIMEN FISCAL DE LAS ENTIDADES SIN FINES LUCRATIVOS E INCENTIVOS FISCALES AL MECENAZGO.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La última década ha sido testigo del importante desarrollo conseguido por las entidades privadas sin fines lucrativos. El crecimiento de la conciencia social acerca de la necesidad de la participación del sector privado en las actividades de interés general, en apoyo de un sector público en ocasiones incapaz de cubrir las crecientes necesidades sociales surgidas al amparo del denominado Estado del Bienestar, ha impulsado tanto la aparición de nuevas entidades como el aumento del apoyo ciudadano a las mismas.

Resultado de este avance es el desfase sufrido por la regulación aprobada por la Norma Foral 13/1996, de 24 de abril, de Incentivos Fiscales a la Participación Privada en Actividades de Interés General, por lo que la presente Norma Foral viene a sustituir dicha normativa por otra más moderna, con los objetivos de ofrecer seguridad jurídica a las entidades integradas en su ámbito, flexibilizar las condiciones a cumplir por las mismas para la aplicación del régimen y mejorar el tratamiento fiscal aplicable a las aportaciones sociales destinadas a la realización de actividades de interés general.

La Norma Foral está estructurada en tres Títulos. El Título I recoge el objeto, el ámbito de aplicación y la referencia a la normativa supletoria.

El Título II, encargado de regular el régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos, queda distribuido en tres Capítulos. En el primero de ellos se especifican las condiciones que han de cumplir las fundaciones y las asociaciones declaradas de utilidad pública para poder ser consideradas entidades sin fines lucrativos a los efectos de la Norma Foral y, por lo tanto, poder optar al régimen fiscal establecido en la misma.

Entre los requisitos establecidos sigue destacando la obligatoriedad de destinar un mínimo del 70 por 100 de las rentas procedentes de sus explotaciones económicas y de la transmisión de bienes o derechos, a los fines propios de la entidad, constituyendo una novedad que se exceptúen las cuantías procedentes de la enajenación de bienes inmuebles en los que la entidad desarrolle su actividad propia cuando se reinviertan cumpliendo determinados requisitos.

El plazo establecido para cumplir la obligación mencionada es el comprendido entre el inicio del ejercicio en que se hayan obtenido las rentas e ingresos y los cuatro años siguientes al cierre del referido ejercicio, destacando como excepción las rentas procedentes de la transmisión onerosa de valores mantenidos durante más de tres años, para las que el plazo se dilata hasta los diez años.

Con carácter general, las entidades no pueden dispensar trato de favor ni tener como destinatarios principales de sus actividades a quienes las fundaron o formen parte de sus órganos rectores, ni a sus familiares.

Gainera, bai organo artzakeri horietako kideek, bai finantza-paritaidetzakoak diren merkataritzako sozietateetan erakundea ordezkatzan duten administrariak dohainik aritu behar dute dagokien karguan; baina dena dela, ordaindu ahal izango zaie, zeregin horiek ekarritako gastua konpentsatzeko.

Erakundea deseginez gero, Foru Arauan ezarritako baldintzei jarraiki, desegindako erakundearen ondasun osoa mezenasgoa jasotzen duen erakunde batek hartu beharko du, edo, bestela, interes orokorrekoa den eta fundazionala ez den erakunde publikoren batek.

Azkenik, txosten ekonomikoa egin behar da urtero, ekitaldiko sarrerak eta gastuak, eta, era berean, merkataritzako erakundeetako partaidetzaren ehunekoa ondo zehaztuta.

II. Tituluko II. Kapituluan, irabazteko xederik gabeko erakundeek Sozietateen gaineko Zergan duten zerga-ordainketa berezia aztertu da, eta, hasteko, ordainketa hori arautzen duen Foru Araura jo da osagarri moduan.

Zerga horrek zergapetu gabetzat jo ditu honako errenta hauek: kontraprestaziorik gabe lortutako sarreretatik, ondasun higiezinetik eta higigarritik, ondasunak edo eskubideak eskuratzetik edo eskualdatzetik eta jarduera ekonomiko salbuesiak egitetik etorritako errentak, eta, orobat, errenta salbuesietatik datozen eta irabazteko xederik gabeko erakundeek dagozkien errentak.

Ustiapen ekonomikoetan jarduteak sortutako errenten tratamendua zerga-erregimen berriaren berrikuntza bat da; salbuespena xede edo helburu zehatza betetzeko egiten diren jarduera horietatik etorritako errententzat ezarri da, laguntzaileak edo osagarriak direnentzat ere bai. Horri dagokionez, jarduera laguntzaileak edo osagarriak dira erakundearen eragiketa guztien bolumen osoaren %25 edo gutxiago hartzen duten horiek. Era berean, salbuesita egongo dira garrantzi gutxikotzat jotzen diren ustiapenak, hau da, 30.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena dutenak.

Zerga-oinarriari aplikatu dakiokkeen tasari dagokionez, aurreko araudian jasotako tasari eutsiko zaio, %10eko tasari, alegia.

III. Kapituluak artikulua bakarra du, tokiko zergei buruzkoa dena; artikulua horretan, zenbait muga kendu dira Ondasun Higiezinaren gaineko eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zergen salbuespenak aplikatzeko, eta salbuespen bat sartu da, Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko Zergan, irabazteko xederik gabeko erakundeentzat.

III. Tituluan, mezenasgorako zerga-pizgarriak arautu dira, eta mezenasgoa jaso dezaketen erakundeen zerranda bat finkatu da. Dohaintzen, ekarpenen eta prestazioen zerga-araubideari buruzko kapituluak, zerga-pizgarriak emateko aukera sartu da, ondasunen, eskubideen eta balioen gaineko gozamen-eskubideak eratzeko –betiere kontraprestaziorik gabe egiten bada– eta, era berean, zenbait kasutan, zerbitzuak dohainik egiteko ere bai.

Kontzeptu horiengatik egin beharreko kenkariaren oinarria finkatu ondoren, %30eko kenkaria ezarri da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotari aplikatu beharreko dohaintzen, emarien eta ekarpenen zenbatekoan, eta %25eko kenkaria, berriz, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kuotan, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunentzat.

Sozietateen gaineko Zergako eta establezimendu iraunkorra duten zergadunentzako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako subjektu pasiboek egindako ekarpenei dagokienez, indarrean dagoen tratamenduari dagokien jarraituko da, eta, hartara, gastu kengarri bezala hartuko dira bi zergen oinarria zein den zehazterakoan.

III. Kapituluak, mezenasgoko jarduera batzuetan aplikatu daitezkeen zerga-onurak aztertu dira, hain zuzen, interes orokorreko jarduerak egiteko enpresa-erlako lankidetzako hitzarmenei eta interes orokorreko xedeetarako egindako gastuei dagozkienak. Era berean, dohaintzan eskaintzeko arte-lanak eskuratzeko dagoen tratamenduari eutsi zaio.

IV. Kapituluak, mezenasgorako lehenatasunez jotzen diren jarduerak egiteko egongo den arau-esparrua eta interes orokor bereziko ekitaldiak bultzatzeko programak finkatu dira.

I TITULUA

XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA ARAUDI ORDEZKATZAILEA

1. artikulua.- Xedea.

Foru Arau honen xedea da bertan zehaztutako irabazteko asmorik gabeko erakundearen zerga-araubidea arautzea, erakundearen zeregin soziala, jarduerak eta ezaugarriak kontuan izanda.

Además, tanto los miembros de dichos órganos rectores como los administradores que representen a la entidad en las sociedades mercantiles de cuyo capital participe han de desarrollar su cargo de forma gratuita, aunque podrán ser compensados por los gastos que su labor les ocasione.

En los supuestos de disolución, el destino de la totalidad del patrimonio de la entidad disuelta habrá de ser una entidad considerada beneficiaria del mecenazgo de acuerdo con los requisitos establecidos en la Norma Foral, o alguna entidad pública no fundacional con fines de interés general.

Por último, se establece la obligatoriedad de elaboración anual de una memoria económica que incluya los ingresos y gastos del ejercicio y su porcentaje de participación en entidades mercantiles.

El Capítulo II del Título II trata de la especial tributación de las entidades sin fines lucrativos en el Impuesto sobre Sociedades, comenzando por una remisión supletoria a la Norma Foral reguladora del mismo.

En este Impuesto, se declaran exentas las rentas procedentes de los ingresos obtenidos sin contraprestación, de su patrimonio mobiliario e inmobiliario, de la adquisición o transmisión de bienes o derechos y del ejercicio de explotaciones económicas exentas, así como las que procediendo de rentas exentas hayan de ser atribuidas a las entidades sin fines lucrativos.

El tratamiento de las rentas derivadas del ejercicio de explotaciones económicas constituye una novedad del nuevo régimen fiscal, estableciéndose la exención para las que procedan de aquéllas que se desarrollen en cumplimiento de su objetivo o finalidad específica, incluidas las de carácter auxiliar o complementario. A este respecto se señala que tendrán la consideración de auxiliar o complementarias las actividades que supongan como máximo un 25 por 100 del volumen de operaciones total de la entidad. Asimismo, estarán exentas las explotaciones consideradas de escasa relevancia, definiéndose como tales aquéllas cuyo volumen de operaciones no supere los 30.000 euros.

En cuanto al tipo aplicable a la base imponible, se mantiene el del 10 por 100, contenido en la normativa anterior.

En el artículo único que configura el Capítulo III, dedicado a los tributos locales, se suprimen ciertas limitaciones para la aplicación de las exenciones en los Impuestos sobre Bienes Inmuebles y sobre Actividades Económicas y se introduce una exención en el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana para las entidades sin fines lucrativos.

El Título III regula los incentivos fiscales al mecenazgo, estableciendo un listado de las posibles entidades beneficiarias del mecenazgo. En el Capítulo relativo al régimen fiscal de las donaciones, aportaciones y prestaciones se introduce la concesión de incentivos fiscales a la constitución de derechos reales de usufructo sobre bienes, derechos y valores, realizada sin contraprestación, así como, en determinados supuestos, a las prestaciones gratuitas de servicios.

Tras fijar la base de las deducciones por estos conceptos, se establece una deducción del 30 por 100 del importe de los donativos, donaciones y aportaciones a aplicar en la cuota el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del 25 por 100 en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes para los contribuyentes sin establecimiento permanente.

En cuanto a las aportaciones efectuadas por los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes para los contribuyentes con establecimiento permanente, siendo continuista con el tratamiento vigente, se configuran como gasto deducible a efectos de determinar la base imponible de ambos Impuestos.

El Capítulo III se dedica a los beneficios fiscales aplicables a diversas actuaciones de mecenazgo consistentes en convenios de colaboración empresarial en actividades de interés general y gastos realizados para los fines de interés general. Asimismo, se mantiene el tratamiento de las adquisiciones de obras de arte para oferta de donación.

En el Capítulo IV se establece el marco normativo en el que se desenvolverán las actividades consideradas como prioritarias de mecenazgo, así como los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público.

TÍTULO I

OBJETO, ÁMBITO DE APLICACIÓN Y NORMATIVA SUPLETORIA

Artículo 1.- Objeto.

La presente Norma Foral tiene por objeto regular el régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos definidas en la misma, en consideración a su función social, actividades y características.

Era berean, mezenasgorako zerga-pizgarriak arautu behar ditu. Foru Arau honen ondorioetarako, mezenasgoa da erakunde pribatuek parte hartzea interes orokorreko jarduerak antolatzen.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Foru Arau honetan ezarritakoa aplikatuko zaie Arabako Lurralde Historikoko zerga-araubidea aplikatu ahal zaien subjektu pasiboei, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak 2. artikuluan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauak 2. artikuluan, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauak 2. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

3. artikulua.- Araudi ordezkatzailerak.

Foru Arau honek ezarri ez duenari dagokionez, oro har, Arabako Lurralde Historikoko zerga-araudia aplikatuko da.

II TITULUA

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEN ZERGA ARAUBIDE BEREZIA

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

4. artikulua.- Irabazteko xederik gabeko erakundeak.

Foru Arau honen ondorioetarako, irabazteko xederik gabeko erakundeak dira onura publikokotzat jo diren fundazioak eta elkarteak eta, era berean, haien federazioak eta elkarteak, betiere, interes orokorreko helburuak badituzte, dagokien erregistroan inskribatuta badaude eta ondorengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Ondorio horietarako, honako hauek dira, besteak beste, interes orokorreko jarduerak: giza eskubideen eta terrorismoaren biktimen defentsa eta indarkeriaren aurkako jarrerak, gizarteko laguntzak eta gizartean txertatzeko laguntzak, helburu zibikoak, hezkuntzakoak, kulturalak, zientifikoak, kirolekoak, osasunekoak, lanbidekoak, erakundeak indartzeko balio dutenak, garapenerako lankidetzak, boluntarioak sustatzea, gizarte-ekintza sustatzea, ingurumena zaintzea, arrazoi fisikoak, ekonomikoak edo kulturalak tartean direla baztertuak izateko arriskua duten pertsonen sostengua eta laguntza ematea, Konstituzioko eta Estatutuko balioak bultzatzea eta demokraziaren printzipioak aldeztzea, tolerantzia sustatzea, ekonomia soziala indartzea, informazioaren gizartea garatzea, eta ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa garatzea.

5. artikulua.- Irabazteko xederik gabeko erakundeek bete beharreko baldintzak.

Foru Arau honen ondorioei begira, aurreko artikuluan aipatu diren eta ondoko baldintzak betetzen dituzten erakundeek irabazteko asmorik gabeko erakundeak direla joko da; hona hemen bete beharreko baldintzak:

1. Errenta edo sarrera batzuen %70 edo gehiago interes orokorreko helburuetarako bideratuko dute; hona hemen errentak edo sarrerak:

a) Egiten dituzten ustiapen ekonomikoen errentak.

b) Beren titulartasuneko eskubideak edo ondasunak eskualdatzeak ekarritako errentak. Errenta horiek kalkulatzekoan, ez dira aintzat hartuko erakundeak bere xedeari edo helburu zehatzari dagokion jarduerak egiteko dituen ondasun higiezinak kostu bidez eskualdatzean lortutako errentak, betiere ondasun horiek eskualdatzean ateratako zenbatekoa egoera berean dauden ondasunetan edo eskubideetan berriz inbertitzen bada.

c) Bestelako kontzeptuen bidez lortutako sarrerak, sarrera horiek lortzeko egindako gastuak kendu ondoren. Sarrera horiek lortzeko egindako gastuek honako hauek edukiko dituzte: kanpoko zerbitzuei dagozkien gastuen zati proportzionala, langileriako gastuena, kudeaketako bestelako gastuena, finantza- eta zerga-gastuena, sarrerak lortzeko balio badute; kalkulu honetatik kanpo utziko dira, berriz, estatutuko xedeak edo irabazteko xederik gabeko erakundearen helburuak lortzeko egin diren gastuak. Sarrerak kalkulatzekoan, ez dira kontuan hartuko eratzeko unean edo geroxeago ondareko zuzkidura moduan jasotako ekarpenak edo dohaintzak.

Irabazteko xederik gabeko erakundeek ondareko zuzkidura edo erreserbak handitzeko erabili beharko dituzte gainerako errentak eta sarrerak.

Baldintza hori betetzeko epea errentak eta sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieran hasi, eta ekitaldia itxi ondorengo lau urteak igarotakoan bukatuko da. Ez da horrela egingo, ordea, hiru urte baino

De igual modo, tiene por objeto regular los incentivos fiscales al mecenazgo. A efectos de esta Norma Foral se entiende por mecenazgo la participación privada en la realización de actividades de interés general.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación.

Lo dispuesto en la presente Norma Foral será aplicable a los sujetos pasivos a los que resulte de aplicación la normativa tributaria del Territorio Histórico de Álava en virtud de lo dispuesto en el artículo 2 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, en el artículo 2 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el artículo 2 de la Norma Foral 7/1999, de 19 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Artículo 3.- Normativa supletoria.

En lo no previsto en esta Norma Foral se aplicará, con carácter general, la normativa tributaria del Territorio Histórico de Álava.

TÍTULO II

RÉGIMEN FISCAL ESPECIAL DE LAS ENTIDADES SIN FINES LUCRATIVOS

CAPÍTULO I

NORMAS GENERALES

Artículo 4.- Entidades sin fines lucrativos.

Se consideran entidades sin fines lucrativos, a los efectos de la presente Norma Foral, las fundaciones y las asociaciones declaradas de utilidad pública, así como las federaciones y asociaciones de las mismas, que persiguiendo fines de interés general, se encuentren inscritas en el registro correspondiente y cumplan los requisitos establecidos en el artículo siguiente.

A estos efectos, se considerarán fines de interés general, entre otros, los de defensa de los derechos humanos, de las víctimas del terrorismo y actos violentos, los de asistencia social e inclusión social, cívicos, educativos, culturales, científicos, deportivos, sanitarios, laborales, de fortalecimiento institucional, de cooperación para el desarrollo, de promoción del voluntariado, de promoción de la acción social, de defensa del medio ambiente, de promoción y atención a las personas en riesgo de exclusión por razones físicas, económicas o culturales, de promoción de los valores constitucionales y estatutarios y defensa de los principios democráticos, de fomento de la tolerancia, de fomento de la economía social, de desarrollo de la sociedad de la información, o de investigación científica y desarrollo tecnológico.

Artículo 5.- Requisitos de las entidades sin fines lucrativos.

Las entidades a que se refiere el artículo anterior, que cumplan los siguientes requisitos, serán consideradas, a efectos de esta Norma Foral, como entidades sin fines lucrativos:

1º. Que destinen a la realización de los fines de interés general, al menos, el 70 por 100 de las siguientes rentas e ingresos:

a) Las rentas de las explotaciones económicas que desarrollen.

b) Las rentas derivadas de la transmisión de bienes o derechos de su titularidad. En el cálculo de estas rentas no se incluirán las obtenidas en la transmisión onerosa de bienes inmuebles en los que la entidad desarrolle la actividad propia de su objeto o finalidad específica, siempre que el importe de la citada transmisión se reinvierta en bienes y derechos en los que concurra dicha circunstancia.

c) Los ingresos que obtengan por cualquier otro concepto, deducidos los gastos realizados para la obtención de tales ingresos. Los gastos realizados para la obtención de tales ingresos podrán estar integrados, en su caso, por la parte proporcional de los gastos por servicios exteriores, de los gastos de personal, de otros gastos de gestión, de los gastos financieros y de los tributos, en cuanto que contribuyan a la obtención de los ingresos, excluyendo de este cálculo los gastos realizados para el cumplimiento de los fines estatutarios o del objeto de la entidad sin fines lucrativos. En el cálculo de los ingresos no se incluirán las aportaciones o donaciones recibidas en concepto de dotación patrimonial en el momento de su constitución o en un momento posterior.

Las entidades sin fines lucrativos deberán destinar el resto de las rentas e ingresos a incrementar la dotación patrimonial o las reservas.

El plazo para el cumplimiento de este requisito será el comprendido entre el inicio del ejercicio en que se hayan obtenido las respectivas rentas e ingresos y los cuatro años siguientes al cierre de di-

gehiago dituzten balioak kostu bidez eskualdatzean lortutako errentak badira, kasu horretan epea hamar urtekoa izango baita.

2. Erakundeak ez du jardungo bere helburuarekin edo estatutuko xedeekin zerikusirik ez duten ustiapen ekonomikoak egiten. Baldintza hori bete dela joko da erakundearen helburuari edo estatutuko xedeari lotuta ez dauden eta salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoaren multzo osoari dagokion ekitaldiko eragiketen bolumena erakundearen eragiketa guztien bolumenaren %40tik gorakoa ez bada, eta betiere salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomiko horiek egiteak lehiaren defentsarako arauak hausten ez baditu, jarduera berean aritzen diren enpresei dagokienez.

Foru Arau honen ondorioetarako, irabazteko xederik gabeko erakundeek ekoizteko baliabideak eta giza baliabideak beren kabuz antolatu behar dituztenez, edo bi baliabide horietako bat antolatu behar dutenez, ondasunak edo zerbitzuak ekoizten edo banatzen jarduteko, ustiapen ekonomikoak egiten ari direla jotzen da. Ondorio horietarako, erakundearen inmutable-ondarea errentan ematea ez da ustiapen ekonomikoa.

3. Erakundeko sortzaileak, bazkideak, ugazabak, estatutu-ordezkariek, gobernu-organismoetako kideak eta Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak ezarritako eskakizunak betetzen dituzten ezkontideak eta izatezko bikoteak edo haien senideak –habetako edozeinen laugarren graduaraino, gradu hori ere barne hartuta– ez dira izango erakundeek egiten dituzten jarduera nagusien hartzaileak, eta, era berean, ez dute izango baldintza berezirik edo hobeaerik zerbitzuak erabiltzeko garaian.

Alabaina, hainbat jarduerari eta fundaziori ez zaie aplikatuko aurreko paragrafoan xedatutakoa; hona hemen zein diren: ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemaileak 20. artikulua lehengo idatz-zatiko 8. eta 13. zenbakietan aipatutako gizarte-laguntzako edo kirol-arloko jarduerak; eta euskal ondare kulturalako edo Espainiako ondare historikoko ondasunak kontserbatzeko eta birgaitzeko xedea duten fundazioak, betiere, Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak ezarritakoak betetzen badute, hurrenez hurren, edota aplikatu beharreko autonomia-erkidegoko araua betetzen badute.

4. Ugazabaren, estatutu-ordezkarieren eta gobernu-organoko kidearen karguak doakoak izango dira; hori gorabehera, karguko zereginak egiteak sortutako gastuak ordaindu ahal izango zaizkie, behar bezala egiaztatu ondoren, baina kontzeptu horengatik jasotzen den kopurua ez da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian zergatik salbuetsitako dietatzat jotzeko ezarri diren mugetatik gora joango.

Onura publikoko elkarteak izanez gero, ordezkaritzako organoek ordainsariak jaso ahal izango dituzte, betiere diru-laguntza eta funts publikoen kargura egiten badute.

Erakundeak ordainsaria eman ahal izango die ugazabei, estatutu-ordezkariei eta gobernu-organoko kideei zerbitzuak egiteagatik, lan-harreman baten barruan egindako zerbitzuei dagokien ordainsaria ere bai, nahiz eta zerbitzu horiek ez izan patronatuko edo ordezkaritzako organoko kide gisa egin behar dituzten zereginak, eta betiere erakundearen arautzen duen araudian ezarritako baldintzak betetzen badira. Pertsona horiek ezin izango dute erakundearen emaitza ekonomikoetan parte hartu, ez haien kabuz, ez eta tartean jarritako pertsona edo erakunde baten bidez ere.

Erakundeak partaidetza duen merkataritzako sozietateetan erakundearen ordezkaritzan aritzen diren administrariei era berean aplikatuko zaie zenbaki honetan ezarritakoa, administrariak jasotako ordainsariak ordezkatutako erakundeari itzultzen zaizkionean izan ezik. Kasu horretan, administrariak jasotako ordainsaria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo da, eta ez da inolako atxikipenik egin beharko zerga hori dela-eta.

5. Erakundea deseginez gero, erakundearen ondare osoa edo zati bat Foru Arau honen 18.etik 26.era bitarteko artikuluetan –bi artikuluko horiek ere barne hartuta– ezarritakoari jarraiki mezenasgoaren erakunde onuraduntzat hartu diren erakundeetako bati emango zaio, edo fundazionalak ez diren eta interes orokorreko xedeak dituzten eta, halaber, fundazioaren negozioan edo desegindako erakundearen estatutuetan inguruabar hori berariaz jasota duten erakunde publikoei emango zaie; bestalde, irabazteko xederik gabeko erakunde horiei Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak 90. artikulua 1. idatz-zatiko c) letrako kasurako ezarritako zerga-arau-bidea aplikatu ahal izango zaie.

Foru Arau honen ondorioetarako, ez dira inolara ere irabazteko xederik gabeko erakundetzat joko, beren araubide juridikoak baimentzen dielako, erakundearen iraungitzean denean, ondarea jarri zuen horri edo haren ondorengoei edota legatu-hartzaileei ondarea berriz

cho ejercicio, salvo que se trate de rentas obtenidas en la transmisión onerosa de valores cuya antigüedad supere los tres años, en cuyo caso el plazo anterior será de diez años.

2º. Que la actividad realizada no consista en el desarrollo de explotaciones económicas ajenas a su objeto o finalidad estatutaria. Se entenderá cumplido este requisito si el volumen de operaciones del ejercicio correspondiente al conjunto de las explotaciones económicas no exentas ajenas a su objeto o finalidad estatutaria no excede del 40 por 100 del volumen de operaciones total de la entidad, siempre que el desarrollo de estas explotaciones económicas no exentas no vulnere las normas reguladoras de defensa de la competencia en relación con empresas que realicen la misma actividad.

A efectos de esta Norma Foral, se considera que las entidades sin fines lucrativos desarrollan una explotación económica cuando realicen la ordenación por cuenta propia de medios de producción y de recursos humanos, o de uno de ambos, con la finalidad de intervenir en la producción o distribución de bienes o servicios. El arrendamiento del patrimonio inmobiliario de la entidad no constituye, a estos efectos, explotación económica.

3º. Que los fundadores, asociados, patronos, representantes estatutarios, miembros de los órganos de gobierno y los cónyuges, parejas de hecho que cumplan los requisitos establecidos en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, o parientes hasta el cuarto grado inclusive de cualquiera de ellos, no sean los destinatarios principales de las actividades que se realicen por las entidades, ni se beneficien de condiciones especiales para utilizar sus servicios.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no se aplicará a las actividades de investigación científica y desarrollo tecnológico, ni a las actividades de asistencia social o deportivas a que se refiere el artículo 20, apartado Uno, en sus números 8º y 13º, respectivamente, del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido, ni a las fundaciones cuya finalidad sea la conservación y restauración de bienes del Patrimonio Cultural Vasco o del Patrimonio Histórico Español que cumplan las exigencias, respectivamente, de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco o de la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español o de la norma reguladora de la respectiva Comunidad Autónoma que le sea de aplicación.

4º. Que los cargos de patrono, representante estatutario y miembro del órgano de gobierno sean gratuitos, sin perjuicio del derecho a ser reembolsados de los gastos debidamente justificados que el desempeño de su función les ocasione, sin que las cantidades percibidas por este concepto puedan exceder de los límites previstos en la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para ser consideradas dietas exceptuadas de gravamen.

En el supuesto de asociaciones declaradas de utilidad pública los órganos de representación podrán percibir retribuciones siempre que no lo hagan con cargo a fondos y a subvenciones públicas.

Los patronos, representantes estatutarios y miembros del órgano de gobierno podrán percibir de la entidad retribuciones por la prestación de servicios, incluidos los prestados en el marco de una relación de carácter laboral, distintos de los que implica el desempeño de las funciones que les corresponden como miembros del Patronato u órgano de representación, siempre que se cumplan las condiciones previstas en las normas por las que se rige la entidad. Tales personas no podrán participar en los resultados económicos de la entidad, ni por sí mismas, ni a través de persona o entidad interpuesta.

Lo dispuesto en este número será de aplicación igualmente a los administradores que representen a la entidad en las sociedades mercantiles en que participe, salvo que las retribuciones percibidas por la condición de administrador se reintegren a la entidad que representen. En este caso, la retribución percibida por el administrador estará exenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y no existirá obligación de practicar retención a cuenta de este Impuesto.

5º. Que, en caso de disolución, su patrimonio se destine en su totalidad a alguna de las entidades consideradas como entidades beneficiarias del mecenazgo a los efectos previstos en los artículos 18 a 26, ambos inclusive, de esta Norma Foral, o a entidades públicas de naturaleza no fundacional que persigan fines de interés general, y esta circunstancia esté expresamente contemplada en el negocio fundacional o en los estatutos de la entidad disuelta, siendo aplicable a dichas entidades sin fines lucrativos el régimen tributario previsto para el supuesto de la letra c) del apartado 1 del artículo 90 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

En ningún caso tendrán la condición de entidades sin fines lucrativos, a efectos de esta Norma Foral, aquellas entidades cuyo régimen jurídico permita, en los supuestos de extinción, la reversión de su patrimonio al aportante del mismo o a sus herederos o legatarios,

itzuli ahal dieten erakunde horiek, Foru Arau honen 18.etik 26.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako mezenasgoaren onuradun den erakunderen bati ondarea itzultzea ezarrita dagoen kasuetan izan ezik.

6. Erakundeak txosten ekonomiko bat egin beharko du urtero eta, hor, behar bezala zehaztuko ditu ekitaldiko sarrerak eta gastuak, kategorien eta proiektuen arabera identifikatu ahal izateko, eta, orobat, merkataritzako erakundeetan duten partaidetzaren ehunekoa ere bai.

Kontabilitateko araudiari jarraiki urtero txosten bat egin behar duten erakundeek zerbaki honetan aipatutako informazioa sartu beharko dute txosten horretan.

Arauen bidez ezarriko da txosten ekonomiko horren edukiak nolakoa izan behar duen, bera aurkezteko epea zein den eta zein organori aurkeztu behar zaion.

Dena dela, txosten horretan derrigorrez sartu beharko dira edozein kontzeptua dela-eta patroiei, estatutu-ordezkariei eta gobernu-organotako kideei eragindako ordainak

6. artikulua.- Helbide fiskala.

Irabazteko asmorik gabeko erakundeen helbide fiskala beren helbide soziala izango da, betiere administrazioko kudeaketa eta erakundearen zuzendaritza helbide horretan behar bezala zentralizatu badaude. Horrela izan ezik, helbide fiskala kudeaketa edo zuzendaritza hori egiten den lekua izango da.

Aurreko irizpideei jarraiki helbide fiskala zehaztea ezinezkoa deanean, erakundeak ibilgetu gehiena Euskal Autonomia Erkidegoan duenean baina Araban beste bi lurralde historikoetan baino ibilgetu gehiago duenean, bere helbide fiskala Araban dagoela joko da.

II. KAPITULUA

SOZietateen GAINeko ZERGA

7. artikulua.- Aplikatu daitekeen araudia.

Kapitulu honetan ezarri ez denari dagokionez, irabazteko asmorik gabeko erakundeek Sozietateen gaineko Zergaren araudia aplikatuko zaie.

8. artikulua.- Errenta salbuetsiak.

Foru Arau honek aipatzen dituen irabazteko xederik gabeko erakundeek lortutako errentek ez dute Sozietateen gaineko Zerga ordaindu beharko zenbait kasutan; hona hemen kasuak:

1. Ondoko sarreretatik eratorritakoak:

a) Erakundearen xedeak betetzeko laguntza emate aldera jasotako dohaintzak eta emariak, erakundea eratzean edo geroxeago, ondareko zuzkidura gisa egindako ekarpenak edo dohaintzak barne hartuta; eta Foru Arau honen 26. artikuluan araututako enpresa-arloko lankidetzak-hitzarmenen bidez eta Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1998 Lege Orokorrak aipatzen dituen publizitateko babesletzako kontratuen bidez jasotako diru-laguntzak.

b) Kideek, lankideek edo ongileek ordaindutako kuotak, betiere salbuetsita ez dagoen ustiapen ekonomiko batetik etorritako prestazio bat jasotzeko eskubide bati ez dagozkio.

c) Diru-laguntzak, salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoak finantzatzeko direnak izan ezik.

2. Erakundearen ondare higigarritik eta higiezinetik datozenak, hala nola, sozietateen mozkinetako dibidenduak eta partaidetzak, interesak, kanonak eta alokairuak.

3. Edozein titulu, ondasun edo eskubide eskuratzearen edo eskualdatzearen ondoriozkoak, erakundea desegitean edo kitatzean lortutakoak barne hartuta.

4. Hurrengo artikuluan aipatzen diren ustiapen ekonomiko salbuetsiak egitean lortutakoak.

5. Zerga-araudiaren arabera, irabazteko xederik gabeko erakundeek eman edo gotzi behar zaizkienak eta artikulua honen aurreko idatz-zatietan sartutako errenta salbuetsiren batetik datozenak.

9. artikulua.- Ustiapen ekonomiko salbuetsiak.

Irabazteko xederik gabeko erakundeek ondoko ustiapen ekonomiko hauen bidez lortutako errentak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira.

salvo que la reversión esté prevista en favor de alguna entidad beneficiaria del mecenazgo a los efectos previstos en los artículos 18 a 26, ambos inclusive, de esta Norma Foral.

6º. Que elaboren anualmente una memoria económica en la que se especifiquen los ingresos y gastos del ejercicio, de manera que puedan identificarse por categorías y por proyectos, así como el porcentaje de participación que mantengan en entidades mercantiles.

Las entidades que estén obligadas en virtud de la normativa contable que les sea de aplicación a la elaboración anual de una memoria deberán incluir en dicha memoria la información a que se refiere este número.

Reglamentariamente, se establecerán el contenido de esta memoria económica, su plazo de presentación y el órgano ante el que debe presentarse.

No obstante, dentro de esta memoria deberán incluirse obligatoriamente los pagos afectados por cualquier concepto a los patronos, representantes estatutarios y miembros de los órganos de gobierno.

Artículo 6.- Domicilio fiscal.

El domicilio fiscal de las entidades sin fines lucrativos será el del lugar de su domicilio social, siempre que en él esté efectivamente centralizada la gestión administrativa y dirección de la entidad. En otro caso, dicho domicilio será el lugar en que se realice dicha gestión y dirección.

Cuando no pueda determinarse el lugar del domicilio fiscal de acuerdo con los criterios anteriores, se entenderá que las entidades tienen su domicilio fiscal en Álava cuando, teniendo en el País Vasco el mayor valor de su inmovilizado, tengan en el Territorio Histórico de Álava un valor de su inmovilizado superior al que tengan en cada uno de los otros dos Territorios Históricos.

CAPÍTULO II

IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

Artículo 7.- Normativa aplicable.

En lo no previsto en este Capítulo, serán de aplicación a las entidades sin fines lucrativos la normativa reguladora del Impuesto sobre Sociedades.

Artículo 8.- Rentas exentas.

Las rentas obtenidas por entidades sin fines lucrativos a que se refiere la presente Norma Foral están exentas del Impuesto sobre Sociedades en los siguientes supuestos:

1º. Las derivadas de los siguientes ingresos:

a) Los donativos y donaciones recibidos para colaborar en los fines de la entidad, incluidas las aportaciones o donaciones en concepto de dotación patrimonial, en el momento de su constitución o en un momento posterior, y las ayudas económicas recibidas en virtud de los convenios de colaboración empresarial regulados en el artículo 26 de esta Norma Foral y en virtud de los contratos de patrocinio publicitario a que se refiere la Ley 34/1998, de 11 de noviembre, General de Publicidad.

b) Las cuotas satisfechas por los asociados, colaboradores o beneficiarios, siempre que no se correspondan con el derecho a percibir una prestación derivada de una explotación económica no exenta.

c) Las subvenciones, salvo las destinadas a financiar la realización de explotaciones económicas no exentas.

2º. Las procedentes del patrimonio mobiliario e inmobiliario de la entidad, como son los dividendos y participaciones en beneficios de sociedades, intereses, cánones y alquileres.

3º. Las derivadas de adquisiciones o de transmisiones, por cualquier título, de bienes o derechos, incluidas las obtenidas con ocasión de la disolución y liquidación de la entidad.

4º. Las obtenidas en el ejercicio de las explotaciones económicas exentas a que se refiere el artículo siguiente.

5º. Las que, de acuerdo con la normativa tributaria, deban ser atribuidas o imputadas a las entidades sin fines lucrativos y que procedan de rentas exentas incluidas en alguno de los apartados anteriores de este artículo.

Artículo 9.- Explotaciones económicas exentas.

Están exentas del Impuesto sobre Sociedades las rentas obtenidas por entidades sin fines lucrativos que procedan de las siguientes explotaciones económicas:

1. Erakundearen xede edo helburu berezia betetzeko egiten diren ustiapen ekonomikoen ondorio direnak.

2. Ustiapen ekonomiko salbuetsien osagarriak edo laguntzaileak diren ustiapen ekonomikoen bidez lortutakoak edota estatutuko helburuak lortzeko edo irabazteko xederik gabeko erakundearen helburua betetzeko direnak.

Ustiapen ekonomikoek izaera laguntzaile edo osagarri hutsa dutela jo ahal izateko, ustiapen horiek dagokien ekitaldian duten eragiketen bolumena ez da erakundearen eragiketa guztien %25etik gorago joango.

3. Garrantzi gutxiko ustiapen ekonomikoetatik etorritakoak. Ildo horretan, garrantzi gutxiko errentak dira ekitaldiko eragiketen guztizko zenbatekoa 30.000 eurotik beherakoa dutenak.

10. artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena.

1. Irabazteko xederik gabeko erakundearen Sozietateen gaineko Zergaren oinarrian, salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoen ondoriozko errentak baizik ez dira sartuko.

2. Sozietateen gaineko Zergaren araudi orokorrak ezarritakoez gain, honako hauek ere ez dira gastu kengarritzat joko:

a) Errenta salbuetsiei berariaz egotzitako gastuak.

Salbuetsita ez dauden errentei zati batean egotzi ahal zaizkien gastuak kengarriak izango dira, hain zuzen, salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoek ekitaldian lortutako eragiketen guztizko zenbatekoak erakundearen eragiketen guztizko zenbatekoan hartzen duen ehunekoan.

b) Zergapean dauden ustiapen ekonomikoek atxikita ez dauden ondareko osagaiak amortizatzerako bideratutako kopuruak.

Jarduera salbuetsiak egiteko zati batean atxikitako ondareko osagai dagokienez, ezin izango dira kendu amortizatzerako bideratutako kopuruak, ondareko osagaiak jarduera hori egiteko atxikita dauden ehunekoan.

c) Emaizten aplikazioa diren kopuruak eta, bereziki, salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoen soberakinak.

11. artikulua. - Balorazio-arauak.

Foru Arau honen 5. artikuluko 5. zenbakiak ezarritakoa aplikatuz, irabazteko xederik gabeko erakunde bat desegitearen ondorio diren ondareko ondasunak eta eskubideak irabazteko xederik gabeko beste erakunde bati eskualdatzen zaizkionean, zerga-ondorioetarako, horiek hartzen dituen erakundeak desegindako erakundearen eskualdatu aurretik zituzten balio berberekin balioetsiko ditu, eta, era berean, desegindako erakundeak eskuratu zituen eguna mantenduko du.

12. artikulua. - Karga-tasa.

Salbuetsita ez dauden jarduera ekonomikoen ondoriozko errentei dagokien zerga-oinarri positiboa %10eko tasarekin zergapetuko da.

13. artikulua. - Kontabilitateko betebeharrak.

Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoekin errentak lortzen dituzten irabazteko xederik gabeko erakundeek zerga hori arautzen duten arauak ezarritako kontabilitateko betebeharrak bete beharko dituzte. Erakunde horien kontabilitatea behar bezala egingo da, salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoek dagozkien sarrerak eta gastuak identifikatu ahal izateko.

14. artikulua. - Atxikipenari lotuta ez dauden errentak.

Foru Arau honen bidez salbuetsita dauden errenten gainean ez da atxikipenik egingo, ez eta konturako sarrerarik ere. Irabazteko xederik gabeko erakundeek, atxikitze bidez bete beharretik salbuesteko, bete beharreko egiaztatze prozedura arauzko eran zehaztuko da.

15. artikulua. - Aitortzeko beharra.

Titulu honetan ezarritako zerga-araubidea hautatzen duten erakundeek beren errenta guztiak –hala salbuetsiak nola salbuetsita ez daudenak– aitortu beharko dituzte, Sozietateen gaineko Zerga dela-eta.

16. artikulua. - Zerga-araubide berezia aplikatzea.

1. Irabazteko xederik gabeko erakundeak Titulu honetan ezarritako zerga-araubide bereziaz baliatu ahal izango dira, arauz ezarritako epean eta eran baliatu ere.

Aukera hori baliatu ondoren, erakundeak araubide horri lotuko zaio, denbora mugagabez, hurrengo zerga-denboraldietan, Foru Arau honen 5. artikuluan ezarritako baldintzak bete arte, eta, era berean, arauz ezarritako eran aplikatzeari uko egiten ez zaion bitartean.

1º. Las que procedan de las explotaciones económicas que se desarrollen en cumplimiento de su objeto o finalidad específica.

2º: Las que procedan de las explotaciones económicas que tengan un carácter meramente auxiliar o complementario de las explotaciones económicas exentas o de las actividades encaminadas a cumplir los fines estatutarios o el objeto de la entidad sin fines lucrativos.

No se considerará que las explotaciones económicas tienen un carácter meramente auxiliar o complementario cuando el volumen de operaciones del ejercicio correspondiente al conjunto de ellas exceda del 25 por 100 del volumen de operaciones total de la entidad.

3º. Las que procedan de las explotaciones económicas de escasa relevancia. Se consideran como tales aquellas cuyo volumen de operaciones del ejercicio no supere en conjunto 30.000 euros.

Artículo 10.- Determinación de la base imponible.

1. En la base imponible del Impuesto sobre Sociedades de las entidades sin fines lucrativos sólo se incluirán las rentas derivadas de las explotaciones económicas no exentas.

